

Dictionnaire ELHUYAR Hiztegia

Elixabete Etxeberria
Elhuyar Hizkuntz Zerbitzuak

Zortzi urte igaro dira Elhuyarrek hiztegi elebidunak argitaratzeari ekin zionetik. Ordutik hona, urrats garrantzitsuak egin dira euskal hiztegi gintzan, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua, besteak beste. Elhuyarrek ere, lehen urrats handi haren ondoren, beste batzuk egin ditu, hiztegi elebidunei eta euskara-hiztegiei dagokienez, betiere, hasierako hartan oinarrituta eta Hiztegi Batuaren ekarpena txertatuta.


ZAZPI URTE IGARO DIRA, BESTALDE, PIARRRES XARRITONEK XABIER KINTANAREN 2000 *ESKOLA HIZTEGIA* Iparraldeko egoerari egokitu eta Elkar-ek argitaratu zuenetik. Orduz geroztik, euskararen egoera aldatu eta areagotu egin da hainbat arlotan, euskaraz gero eta gai gehiago lantzen dira, eta, ondorioz, erabiltzaileen eskakizunak ere areagotuz joan dira.

Eskakizun horien artean, euskara-frantsesa hiztegi elebidun osatuago eta gaurkotuago baten beharra ikusi zen.



Egileak: Elhuyar Fundazioa eta Elkar
Neurriak: 10,9 x 17,5 cm.
Orrialde-kopurua: 836.

36.000 sarrera biltzen ditu aipatu hiztegiak, bi ataletan banatuak: euskara-frantsesa eta frantsesa-euskara. Ohiko hitzekin batera, Iparraldeko ala Hegoaldeko izan, hitz teknikoak eta berriki idazle-kazetariak eguneroko lanean erabili dituztenak ere biltzen dira. 6.000 hitz elkartu, esapide eta lokuzio ere jasotzen ditu hiztegiak. Eta eranskinen sailean, Espainiako eta Frantziako probintzien izenak, munduko estatuen izenak, Euskal Herriko udalen izenak eta gramatika-eranskina.

Hitz-sorta honek, halere, Ipar Euskal Herriko euskaltzale askoren —bereziki itzultzaileen, irakasleen, idazleen edota euskara lan-tresna duten beste hainbaten— hizkuntz beharrak hein batean baino ez ditu agian beteko. Euskara gero eta hedatuago den honetan, euskara eta frantsesa landuko dituen hiztegi elebidun osatuagoen beharra nabaria da. Ildo horretan, proiektu handiagoak obratuko bide dira, zenbait urteren buruko, jakinik, betiere, talde-lan zabala eta sakona eskatuko dutela. 

Xede berria Elkar-ek eta Elhuyar-ek hitzartu eta finkatu zuten eta horren emaitza da oraingoan hizpide dugun *Dictionnaire ELHUYAR Hiztegia*.

“36.000 sarrera biltzen ditu aipatu hiztegiak, bi ataletan banatuak: euskara-frantsesa eta frantsesa-euskara”

EGIN ZAITEZ ELHUYAR FUNDAZIOKO BAZKIDE!

ABANTAILAK

- Patronatuko kide izateko aukera.
- ELHUYAR aldizkaria hilerokoan.
- Ikastaro eta hitzaldietarako sarrera doan.
- Agenda, urtero doan.
- % 20ko deskontua gure produktu guztietan.
- Zerga-aitorpenean desgrabatzeko aukera.
- Sarrera doan edo deskontua museo hauetan.
- 60 €-koa da urte osorako laguntza.

